

Ibiltari 2 (Maideri)

TXOMIN PEILLEN



ORROAKA badoatzen militarren kamioiak, txistuka eriautoak. Andreak dio ezer ez dela gertatu, istripua izango dela. Gaur gabean ingelerazko egunkariak, gehienak hizkuntza hortan baitira, bai holako batean, irakurri diñat, Filipinetako hirur zaurien berri, ezen ugarte horietan mundu guztiko miñak, samiñak eta ajeak metatzen ditun, aski ez balute bezala lurikarekin.

Mindanaon ibiltzen gintunan, baina ez nora nahi, uhartearen zati bat musulmanek kontrolatzen diñe ta %25 diren musulmanek poterea hartu nahi likeñe ta islamaren «homeland» edo aberri bat egin Mindanaon, beste uharteko sines- kideak bilduz eta giristinoak besterara igorritz. Joan den astean egon gintunan Luzonen ta han berriz bi mugimendu harmatu baditun; nekez enik mendera daitekera da Marcosen harmadako gudari-ohiak, ezen eta gobernuak jubilazioa or- daintzen dieten aintziña bezalako lansari ederrak kobratu nahi litizkene eta ezinean bataketan, dro- gaketan, besteak sasi-iraultzale moduan Marcoskerian ibiliz edota biak batean eginez Manillan nahaspil ederrik sortzen diñe.

Azken jazartuak komunista iraul- tzalariak ditun ta lurjabetasunaren erreforma egin ez den ezkerro, latifundiadunak mehatxukaz ibiliz bigegabekeriaren aurkako borroka hortan nekazarien eta behartsuen artean beso onik aurkitzen diñe (esan behar da hango feudal gehienak, euskal jatorrizkoak direla), horiek hirietan haina baserrietan gerrilla egiten diñe.

Bai Corazon izateko uharte haie- tan, Filipina nahasietan Bihotza sendo eduki behar din.

Bakoitzari berea

JOAN MARI TORREALDAI



101 urte beteberri ditu Joxe Migel Barandiaranek. Komunikabide guztiek, erakunde guztiek, agintariek, banketxeek ere, eta bere herri-

tarrek noski... denek sentitu dute On Joxe migel agurtu eta omentzeko obligazioa. Esker ona adierazteko modu egokia da agian, memoria kolektiboa ez galtzeko ere bai, amnesiaren gizarte honetan.

On Joxe Migelek baino omenaldi gehiago jaso duen asko ez da egongo munduan. Gure inguruan ez behin behin. Eta ondo dago, berriz diot.

Omenaldi ugari horietako asko eta asko, ordea, ez dira «egiazkoak». Egon da hor erakundeen arteko lehiaketa: bat hasi eta besteak atzean gelditu nahi ez. Egon da hor argazkien irteteko modu erraza: komunikabideetan agertzeko zer modu «aseptikoagorik» eta erosoagorik Barandiaranen ondoan agertzea baino? Omenaldi asko eta asko edukirik gabeak izan dira, merkeak, irudimen gutxiak, errepikapen soila. Honelakoetan beti gelditu naiz ezin erabakirik zer den harrigarriago, Barandiaranen pazientzia ala antolatzaileen sormen-eskasia. Eta Barandiaranen izenaren zenbat erabilpen interesatu eta manipulazio!

Omenaldiak ondo baino hobeto daude, horixe baietz. Baina, mesedez, edukin eta guzti! Eta, bestalde, Barandiaran aparte, bada nor omendu! Bai makina bat. Bat datorkit neri gogora une honetan: Karlos Santamaria. Luxu asiaticoa da Karlos bezalako gizon bat horren bazterturik eta ahazturik izatea, bai erakundeek, bai Unibertsitateak, bai Ikastolek, eta bai kultur taldeok!

Karlos Santamariaren traiektoia ereduagarria da: pentsamendu-berritzailea frankismoan, euskaldunberria, ikastolen eta euskal unibertsitatearen bultzatzailea, kultur taldeen zuzpertzzailea, irakaslea, idazlea, etab. Eta 81 urte beteberri ditu! Ez al du omenaldirik merezi?

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA


Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIEZ ETXEHARRETA
IÑAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

Egunkaria

HEMEROTEKA



ITURRIA / SUD OUEST / 91-1-4

Diario de Navarra

Txarrera goaz

Badirudi zu harritu egiten zaituela ni Aljerreko negoziatzaieoz kezkatzeak. Bada ziur egon zaitez kezkatu egiten nautela, eta arrazoiz.

Negoiazio horietan mahaia- ren gainean jarri zen Nafarroa- ren afera eta hau Euzkadin sar- tzea negoziatu zen. Bertsio ofi- zialetan konfidantzarik ez du- danez —agian gu bion arteko beste desberdintasun bat da— errepikatu daitezkeen beldur naiz. Sobera dakit anexioa ez

dela erraza izango, nahiz eta Nafarroaren atzetik itunak egin. Baina arriskutsua eta kezka- garrria dela ez zalantzarik izan.

JESUS AIZPUN TUERO / 91-1-4

EL DIARIO VASCO

Kapitalismoaren 'garaipena'

Baina, ai!, geure arrietan ka- pitalismoaren *garaipena* senti- tzen hasi gara: lan merkaturan sar ezin daitezkeen gazteak, etxebi- zitzita duin bat izateko ezintasuna, lanpostuen murrizketa, giza zerbitzuen garestitzea, jubilazio

pentsioen beherakada, etab... Honen aurrean galdera argia da: Zenbat miseria gelditzen zaio oraindik sortzeko kapitalismoari bere garaipen ibilbidea ikutu gabe mantentzeko?

GURUTZ JAUREGI / 1991-1-4

EL PAIS

Ze laguntza behar dute 'sovietek'?

Gizartearen geruzak lotzen zituzten kateak, herri eta nazio- nalitate desberdinak lotzen zituztenak bezala, apurtu egin ziren. Galdera bat egin dezakegu une hauetan, zerekin lot daitezkeen orain planetaren seigarren zatian bizi diren gizabanako eta nazionalitateak. *Perestroika* sustraizko berriketa prozesu gisa hartu duen hura, ziur dago interesa elementu zimendatzai- le berria izan daitekeela. Guz- tiaren gaintik, ekoizpena gara- ratzeko interes materiala, giza- banako bakoitzaren interesa, lanean diharduen kolektibita- tearen interesa, bizi den erre- gioaren interesa. Eta interes ma- teriala diru indartsuan gorpuz- ten da eta estatu finantzial sisti-

ma osasuntsu batean. Gizartea zimendatzeko gisa honetako lehengairik ez da egon Sobiet Batasunaren historian.

Eta gaur ere ez dago. *Peres- troikaren* urteetan soviatar Go- bernuak burututako ekintzek rubloaren prestigioa leher erazi dute.

GENNADI LISITXKIN / 91-1-4

EL INDEPENDIENTE

Drogaren onuradunak

Azken urteotako gertaerarik entzutetsuena latin amerikar narkotrafikanteak eta Reaganen itzalpean Gobernuaren arteko koalizioa izan zen. Oliver North koronelaren zuzendaritzapean, amerikar herriari eta botere le- gislatiboari izkututzen zioten hauek Nikaraguako 'kontrari' ematen zioten laguntza. 'Kon- trari' armak eta beste laguntza batzu eramaten zizkieten he- gazkinak drogaz beteta itzultzen ziren, eta mesede hau Reaganen gerra partikular eta legez kanpo- koarentzat komisio batekin or- daintzen zen.

ALBERTO MONCADA / 91-1-4

ZUZENDARIARI

Arbolak eta betikoa

Lan egiten dudan lekuan, milaka paper botatzen da egunero zakarrontzira. Noiz behinka, paper multzo bat poltsa batean sartzen dut Errenteriako Iztietako elizara eramateko. Han papera har- tzen dute erreziklaje egitera bidaltzeko. Dena den, hau ez zait iruditzen irtenbide ego- kienarik, denok dakigun be- zala, zuhaitzen arazoa haun- diagoa da.

Askotan nere buruari gal- detzen diot ea zergatik Ingu- rugiroko Departamenturik ez den zabaltzen behar den in- formazioa paper baliotsu hau galtzeko.

Adibidez, nora eraman de- zakegu soberan dugun pape- ra, paper berria bihurtzeko? Zein dendetan eros dezakegu paper birziklatu hori?

Informazioz gain, beste ekintza bultzatzea dagoela uste dut arazo honetarako; komisio bat antolatzea, hain zuzen, botatzen dugun pape- raz baliatzeko. «Enpresa» txiki bat, ezin da montatu gai honekin-papera jaso, birzi- klatu, saldu...; lanposturen bat sortzen? Lehen gaia errez

atera daiteke, gainera: ikas- tetxeetatik, dendetatik, bule- goetatik...

Horretaz ez dut asko uler- tzen, baina beste proiektu zaila eta garestiagoak lortu dira, zergatik ez hau edo an- tze koren bat? Zuhaitzek es- kertuko lukete, beraz, giza- tiarrek ere bai.

ARRATE EGAÑA
GIMENEZ
(ERRETERIA)

Zerga eragozleak

Gipuzkoako Zerga Erago- zle taldea gara. Noizbait en- tzun edo ikusiko gintuzun zerga eragozpenaren alde kanpaina egiten. Hots, kon- zientziarazioa suspertzen, Es- tatuak Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen egiten duen banaketa jakinarazten dugunean.

Guk proposatzen dugu de- sobedientzia zibila, gure Errentako Aitorpenatik De- fentsako Ministeritzari da- gokion portzentaia deskon- tatzen dugu, eta Helburu Era- ginkor batetara desbideratzen dugu.

Gaur esan nahi dizuegu

gure bizitzako 7 urteetan, Euskal-Herrian (Hegoal- dean) 600 pertsonak gutxi gora behera burutu dutela zerga eragozpena. Zehatz- mehatz, aurrean Estatu osoan eragotzitako dirua izan da orotara 15.998.000 pezeta.

Egun hauetan eman ditugu eragotzitako diruak Helburu Eraginkor izendatu diren egi- tasmoei. Lehenengoa izan da SOC-eko «Tierra y Libertad» kooperatibaren abeltzaintza aterpe baten finantziaketa Cadiz-en. Bigarrena izan da Lesothon egin dena, Ur Edankorren Hornidura eta Osasun Hezkuntari buruz gauzatu den egitasmoa.

Bukatu dugu esanez, pen- tsatzen dugula gure Errenta- ko aitopenean gauza oker as- ko daudela, eta zuen gogoa hausnarketara bultzatu nahi dugu gai honetaz. Hau egin eta gero, pentsatzen baduzue zerga eragozpena hobe edo itxaropentsuagoa dela: Au- rrera! Izan zaitez zerga era- gozle! Zure zerbitzura gau- de: Eustasio Amilibia kalea, 41 lokala. 1.330 postakutxa- tila. 20080 Donostia.»

ANTONIO MAJO TRECUI
GIPUZKOAKO ZERGA
ERAGOZLE
TALDEAREN PARTAIDE

PERTSONAIA



James Baker

Nonbait norbaitek egin zuen gerrarako inbentua, Bakerrek berriz bilatu nahi du pakerako momentua. Negoziatzen jarri ezazu zuk daukazu talentoa, Gerra Santua baino nahiago dugu ta Pake Santua.

FELIX AIZPURUA

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxes: 46 90 22
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxes: 36 54 93

Publizitatea: Loidola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxes: 42 93 18

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxes: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxes: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxes: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxes: 59 25 75 11